

Adierazle nagusiak 413-2

Materialak 301-1

Marka propioiko produktu eta ontzietan erabilitako materialak, sortzailearen erantzukizun hedatuko sistema kolektibo*ei* aitortuak



Ikus adierazleen eranskineko 25. taula aurreko urteekin alderatzeko.

Papera



Berriztagarriak	
Publizitate liburuxkak	4.559
Aldizkariak	388
Erosketa-tiketak	285
Egoitza	10

Publizitatea:
Paperak % 70eko PEFC (Programme for the Endorsement of Forest Certification schemes) ziurtagiria du. Hau da, bermatuta dago paper hori modu jasangarrian kudeatutako basoetatik datorrela.

CONSUMER EROSKI eta EROSKI Club aldizkariak

Paperak FSC® (Forest Stewardship Council) edo PEFC ziurtagiria dauka, eta baso kudeaketa arduratsua bermatzen du.

Elorrioko egoitza:

Gramaje txikiagoko FSC® eta EU Ecolabel zigiluak dituen paper ekoeraginkorra erabiltzen dugu.

Ikus adierazleen eranskineko 26. taula aurreko urteekin alderatzeko.

Berrerabilitako ontzi logistikoak 301-3



Ontzi logistikoaren haustura % 0,3-30 artekoa da, ontzi mota zein den. Haustura guztiak hartuta, ontzi guztien % 10 baino ez dira .

Ontzi logistiko hauek berrerabiltzeari esker CO₂ baliokidearen 3.100 tona baino gehiago igortzea eta zuhaitz asko moztea ekiditen dugu

Ikus adierazleen eranskineko 27. taula aurreko urteekin alderatzeko.

Kutxa-lerroetan merkaturatutako poltsak



2.387.601
plastikozko poltsa berrerabilgarriak AENORen ziurtagiriarekin*

1.433.958
% 70etik gora plastiko birziklatua duten errafiazko poltsak, berrerabilgarriak

229.965
poltsa solidario berrerabilgarriak

37.328.955
% 55etik gora plastiko birziklatua duen poltsa

1.111.466
paperezko poltsak

7.069.530
poltsa konpostagarriak

41.401.119
erabilera bakarreko plastikozko poltsak*

26.598
bestelako poltsak

* Kutxa-lerroetako poltsak ez dira berritu sare osoan 2019an; 2020an zehar erabilera bakarreko plastikozko ohiko poltsak desagertuko dira denda guztietatik.

Energia 302-1; 302-2; 302-3; 302-4

Erakundearen energia kontsumoa




% 35
Erregai berriztaezinak
263.387.491 kWh

–% 5
2018arekiko


Gas naturala
8.423.621 kWh

–% 16
2018arekiko



Diesela
254.963.870 kWh


–% 5
2018arekiko



% 65
Elektrizitatea
496.719.426 kWh

–% 9
2018arekiko

* Kontsumitutako energiaren % 37,8 iturri berriztagarrietakoa da.



Energiaren kontsumoa erakundetik kanpo 302-2

Hegazkinez egindako lan bidaietan kontsumitutako kerosenoa, errepidez zein trenez egindakoetan kontsumitutako diesela eta trenez egindako lan bidaietako elektrizitatea:

17.103.436 kWh


Ikus adierazleen eranskineko 28., 29. eta 30. taulak aurreko urteekin alderatzeko, eta Gigajuliotan emandako balioak.

Hondakinak 306-2

EROSKIn alderantzizko logistika prozesuak garatzen ditugu, dendetatik gure plataformetara, alegia. Gure jarduerak sortzen dituen hondakinak zuzen kudeatzen direla bermatu nahi dugu, baita kudeatzaile baimendunak hondakinak garraiatzeko fasean ingurumenari egiten dion inpaktua txikitu

ere. Hala ere, zenbait kasutan, kudeatzaileak gure establezimenduetan zuzenean jasotzen ditu hondakinak. Memoria honetan aurkeztutako datuak gure negozioek sortutako eta logistika alderantzizkatuaren bitartez edo kanpo kudeatzaile batek bildutako hondakinei dagozkie.

Hondakin ez arriskutsuak 46.627 tona




Hondakin arriskutsuak 18 tona




Sortutako hondakinak guztira 46.645 tona

Birziklatutako hondakinak 38.019 tona



Ikus adierazleen eranskineko 31. taula aurreko urteekin alderatzeko.


Balorizatutako hondakin organikoak 4.947 tona



Irinen eta animalia olioen zein animaliei jaten emateko pentsuen ekoizpena.


Bezeroei jasotako hondakinak birziklatzeko

Hondakin ez arriskutsuak 791 tona



Ikus adierazleen eranskineko 32. taula aurreko urteekin alderatzeko.


Hondakin arriskutsuak 1.569 tona



Ur kontsumoa 303-1

Gure denda, plataforma eta egoitzetan kontsumitzen den ura edateko uraren horniketarako udal sareetatik iristen da; haiek kudeatzen dute zuzenean banatutako ura hartu eta edateko on bihurtzearena.

1.028.495 m³ kontsumitutako ura




Ikus adierazleen eranskineko 33. taula aurreko urteekin alderatzeko.

Ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriak 301-1; 305-1

EROSKIk 2019an ihesak konpentsatzeko kontsumitutako hozgarriek ez dute ozonoa agortzeko potentzialik (substantziok ez daude Montrealgo Protokoloko A, B, C eta E eranskinetan).

58,31 tona kontsumitutako hozgarriak



Ikus adierazleen eranskineko 34. taula aurreko urteekin alderatzeko.

Isurketak eta jarioak 301-2; 303-4; 306-1; 306-3

1.018.210 m³ sortutako hondakin-uren bolumena

Sortzen dugun hondakin-ura gure jarduera dagoen udalerrietako ur araztegiengan tratatzen dute. Estimazioen arabera, 2019an sortutako hondakin-uren bolumena 1.018.210 m³-koa izan zen. EROSKIk isurketa eta jario kontrolgabeen prebentzio eta kontrolari buruz indarrean dauden legeak betetzen ditu, eta 2019an ez da isurketa edo jario adierazgaririk egon.


Laginak piezometroen bitartez hartu ondoren kaltetutako zoruak edo lurpeko urak hauteman dira bi kasutan (Abadiño eta Usurbil), aurreko urteetako isurketen ondoriozkoak, baina isurketa horien bolumena ezezaguna da; baliteke zorura eta lurpeko uretara egindako iragazteak bezero baten zabarkeriagatik (nahi gabe lurrera botatzea), enpresa hornitzaileak tangak kargatzean nahi gabe lurrera botatzeagatik edo bestelako arrazoiengatik gertatu izana. EROSKIren gasolindegia guztiek ihesak hautemateko sistema daukate, baina ez da horrelako ihesik erregistratu. Sareak mantentze-lan prebentiboetarako kontratua sinatu du petrolio-instalazioen mantentzeaz arduratzen den enpresa batekin, instalazioak behar bezala funtzionatzen duela kontrolatzeko. Gainera, estankotasun-proba guztiak ondo atera dira, bai tangetan bai hodietan. Hautemandako bi kasuetarako, zuzentze-planak aurkeztu zaizkie agintari eskudunei, eta laster abiaraziko dira. Halaber, beste bi zuzentze-plan ditugu martxan aurreko urteetan hautemandako beste bi gune kutsatuetan (Vélez-Málaga eta Jaca), eta 2017an Albaceten abiarazitakoa ere burutu da; hortaz, 2019an zuzentze horien kontrol eta jarraipen planari ekin diogu, emaitza positiboekin, eta 2020an burutuko dugu.

Bioaniztasunerako balio handia duten eremuetan dauden eragiketa guneak 304-1

Gure zentro guztiak hirigunean daude; 90 babes figura hauen eragina duten guneetan daude:

- NB (Naturgune Babestuak)
- IBAS (Espainiako Hegaztien eta Bioaniztasunaren Kontserbaziorako Eremu Garrantzitsuak)
- Natura 2000 Sarea (LIC, ZEC eta ZEPA)
- Biosferaren erreserbak
- IEZH (Espainiako Hezeguneen Inbentarioa)

Nabarmendu behar da probintzia edo autonomia erkidego batzuetan lurraldearen zati handi bat biodibertsitate oso baliagarritzat hartzen dela; hori gertatzen da, esaterako, Galizian eta Balear Uharteetan. EROSKI beti betetzen du ingurumenaren eta bioaniztasunaren legeria zentroen kokapena aukeratu eta haiek eraikitze orduan. Gainera, lanean ari gara, ingurumen inpaktua txikitze eta biodibertsitateari eusteko, zenbait ekintzen bitartez; esate baterako, arrantza jasangarria edo ingurumenaren babesaren arloan munduko aditua den WWF (World Wildlife Fund for Nature) bezalako elkarteekin abiarazitako elkarlana, 2007az geroztik. Elkarrekin bideratutako ekintzen artean nabarmenzen dira arrantzako produktuei buruzko jasangarritasun politika eguneratzea eta Elikadura Eskolaren bitartez kontsumo arduratsua sustatzea.



Zentro baten kokapenean eragiten duen babesgune kopurua:

- 1
- 2
- 3
- 4

Ingurumen ziurtagiriak dituzten produktuak

Gure eskaintza komertziala diseinatzean, lehorreko eta itsasoko bioaniztasuna babesteko helburua hartzen dugu aintzat.

- 2.140 produktu **ekologiko**.
- 342 arrandegi eta arrantzako 8 plataforma logistiko, **MSC** ziurtagiria dutenak.
- Gure kontserbako atunaren % 100ek **ISSF** erakundearen printzipioak betetzen ditu.
- 490 **EROSKI NATUR** produktu, askotariko ziurtagiriekin: Global G.A.P., ekoizpen integratua eta animalien ongizatea.
- 74 produktu **FSC®**, **PEFC** edo **FSI** ziurtagiriekin.



Berotegi efektuko gasen (BEG) isurketak – EROSKlren karbono azterna

305-1; 305-2; 305-3; 305-4; 305-5; 305-6

Memoria honetan azaldutako berotegi efektuko gasen igorpen motak eta iturriak:



Berotegi efektuko gasak:
CO₂ CH₄ N₂O HFC

Igorpen zuzenak	Zeharkako igorpenak	
1. irismena - Errepide bidezko garraio logistikoa kontsumitutako erregaia. - Hozgarri ihesak hotz sistemetan. - Gas naturalaren errekuntza instalazio propioetan.	2. irismena Erabilera propiorako energia sortzea.	3. irismena - Errepide bidez, trenez eta hegazkinez egindako lan bidaietan kontsumitutako erregaia. - Errepide bidezko garraio logistikoa eta lan bidaietan kontsumitutako dieselaren produkzioa. - Edateko uraren kontsumoa; paperaren kontsumoa egoitzetan, publizitatean, aldizkarietan eta erosketatiketan.

Isurketak guztira
CO₂ baliokidearen
291.205 tona
-% 18
2018arekiko

Berotegi efektuko gasen isurien intentsitatea

	kg CO ₂ eq/m ² merkataritza azalera	g CO ₂ baliok. /€ salmenta garbiak
1. irismena	131,6	35,4
*2. irismena	80,7	21,7
3. irismena	24,2	6,5
Guztira	236,5	63,5


Murritzeta, hein handi batean energia kontsumoaren murritzetari zor zaio, bai eta kontsumitutako elektrizitatearen CO₂ isurketa faktore txikiagoari ere. Izan ere, energia berriztagarriak proportzio handiagoan baliatzen dituzten merkaturatzaileek hornitu gaituzte.

Ikus adierazleen eranskineko 35. eta 36. taulak aurreko urteekin alderatzeko.

Berotegi efektuko gasen isurketak, irismenaren arabera


1. irismena
Igorpen zuzenak

CO₂ baliokidearen
162.073 tona
-% 7
2018arekiko



*2. irismena
Kontsumo elektrikoaren zeharkako isurketak


CO₂ baliokidearen
99.344 tona
-% 35
2018arekiko



*2. irismeneko isurketak kalkulatzeko, kontratatutako merkaturatzaileen isurketa faktorea erabili da. Mix nazionalarekin kalkulaturako isurketak Eranskineko 34. Taulan jaso dira, eta aurreko urteetako datuekin alderatu da.

3. irismena
Zeharkako beste igorpen batzuk

CO₂ baliokidearen
29.239 tona
-% 1
2018arekiko



* 3. irismeneko zeharkako igorpenak EROSKlren jardueren ondorio dira, baina haren jabetzakoak ez diren edo kontrolatzen ez dituen eremuetan gertatzen dira. Guztira, 15 kategoria daude (erositako gai eta zerbitzuak, sortutako hondakinak, saldutako produktuen erabilera, etab.), baina memoria honetan haietako batzuk soilik sartu ditugu, ez baitugu denei buruzko daturik. 2019an langileek trenegindako bidaiak eta erosketatiketen papera gehitu ditugu. Hurrengo ekitaldietan, jarduera gehiago aztertuko ditugu EROSKlren karbono azternaren 3. irismenean.